

Erandioko Udala**San Agustín eta Andra Mari udal hilerrietan gorpuzkiak hobitit ateratzea.**

Interesatuiei jakinarazten zaie 2013ko urtarrilaren 15etik 2013ko maiatzaren 15era bitartean gorpuzkiak hobitit ateratzeko lanak egingo ditugula San Agustín eta Andra Mari udal Hilerrietan, 10 urterako alokairu-emakidan utzitako horma-hilobi hauetan:

- Horma-hilobiak (10 urterako kontzesioak): 2001eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra ehortzitakoak (eta lehenagokoak).

Hori dela eta jendaurrean jakinarazten dugu gorpuzkien kargu hartu nahi duten interesdunek, lehenago horretarako eskaria egin ez badute, Erandioko Udaleko Osasun Sailera joan ala idatzizko eskaria egin behar dutela, gorpuzkiak ateratzeko epea amaitu aurretik. Eskaria posta elektronikoki bidez ere egin daiteke osasun@erandiko-udala.net helbidera zuzenduta. Edonola ere, honako datu hauek azaldu behar dira: eskatzailearen izen-deiturak, helbidea eta telefono zenbakia, eta zendutakoaren izena eta zendu zeneko urtea.

Erandioko Elizatean, 2012ko azaroaren 6an.—Alkatea, Joseba Goikouría Zárraga

(II-8367)

Galdakaoko Udala

IRAGARKIA

Galdakaoko Udalbatza Osoak, 2012ko uztailaren 26an egindako bilkuran, Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Udala Araudiari hasierako onespina eman zion. Modu berean, iragarkia BAOean argitaratzea erabaki zuen 30 eguneko epean erreklamazioak eta iradokizunak aurkez zitezen. Epe hori amaitu ondoren, halakorik aurkeztu ez denez, Araudia behin betiko onetsitatzat joko da.

Galdakaon, 2012ko azaroaren 6an.—Alkatea, Ibon Uribe Elorrieta.

Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udala Araudia*Sarrera*

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dioenarekin bat, euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, eta erkidegoko herritar guztiak badute hizkuntza ofizial biak jakin eta ahoz zein idatziz erabiltzeko eskubidea.

Bestalde, hizkuntza dela-eta inork bereizkeriarik jasan ez dezan, lege orokorrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri-aginteei esleitzen diete, haien eskumenen esparruan, bai hizkuntza ofizial bien erabilera bermatu eta arautzeko eskumena, bai eta jakintza eta normalizazioa bizkortzeko neurriak ezartzeko ahalmena ere.

Hortaz, indarreko legedia oinarri harturik, Galdakaoko Udalak, herritarren hizkuntz eskubideak bermatu eta hizkuntz egoera normalizaturantz abiatzeko beharrezko urratsak egin gura dituela, ontzat ematen du Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jartzea, bertan jasotzen baitira udalak barne jardunbidean, herritarrekiko eta beste instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanetan eta gizarte-bizitzan euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko bete beharrezko arauak.

Hala izanik ere udalak dei egiten ditu herritarrak esku har dezaten euskararen normalizazioan eta guztion artean, elkarlanean, lor-

Ayuntamiento de Erandio**Exhumación de restos en los cementerios municipales de San Agustín y Santa María.**

Se comunica a los interesados que entre el 15 de enero y el 15 de mayo de 2013, se llevarán a cabo los trabajos de exhumación de restos en los cementerios municipales de San Agustín y Santa María de Erandio, correspondientes a inhumaciones en nicho-urna en concesiones de alquiler de 10 años, de las siguientes fechas:

- Enterramientos en nicho-urna (concesiones de 10 años) practicados del 1 de enero al 31 de diciembre de 2001 y/o anteriores.

Aquellas personas interesadas en disponer de los mencionados restos y que no lo hayan solicitado con anterioridad, deberán cursar solicitud por escrito o e-mail (osasun@erandiko-udala.net); facilitando nombre del/a solicitante, dirección, teléfono y nombre de la persona difunta y año de fallecimiento; o personarse en las oficinas del Departamento municipal de Salud Pública y Consumo, sito en el Ayuntamiento de Erandio, antes del fin del plazo de exhumaciones.

En la Anteiglesia de Erandio, a 6 de noviembre de 2012.—El Alcalde-Presidente, Joseba Goikouría Zárraga

(II-8367)

Ayuntamiento de Galdakao

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento de Galdakao, en sesión celebrada el día 26 de julio de 2012, aprobó inicialmente la Ordenanza Municipal de promoción y normalización del uso del euskera, disponiendo la publicación del anuncio en el BOB para que pudieran presentarse reclamaciones y sugerencias en el plazo de 30 días. Visto que, una vez finalizado el mismo, no se ha presentado ninguna, se entiende definitivamente aprobada la Ordenanza.

En Galdakao, a 6 de noviembre de 2012.—El Alcalde, Ibon Uribe Elorrieta.

Normativa Municipal de Promoción y Normalización del Uso del Euskera*Introducción*

Conforme a lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, de normalización del uso del euskera, el euskera y el castellano son las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, y toda la ciudadanía de dicha comunidad tiene derecho a conocer ambas lenguas y a utilizarlas en las relaciones tanto orales como escritas.

Por otra parte, a fin de que ninguna persona sea discriminada por razón del idioma, las leyes generales confieren a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca, dentro del ámbito de sus competencias, la potestad de garantizar y regular el uso de las dos lenguas oficiales, así como la facultad de disponer las medidas necesarias para promover su conocimiento y normalización.

Así, tomando como base la legislación general, el Ayuntamiento de Galdakao con el firme propósito de garantizar los derechos lingüísticos de los y las ciudadanas y de dar los pasos pertinentes hacia una situación lingüística normalizada, aprueba la puesta en vigor de esta Normativa Municipal de Promoción y Normalización del Uso del Euskera, puesto que en ella se definen las normas por las que esta administración local debe regirse en aras a normalizar los usos lingüísticos tanto en su funcionamiento interno como en las relaciones con la ciudadanía, con otras instituciones u organismos oficiales, así como en la vida social del municipio.

Siendo así, el Ayuntamiento emplaza a la ciudadanía a comprometerse con la normalización del euskera ya que mediante la

tuko dugu euskararen normalizazioa; normaltasunean, errespetuan eta eskubideetan oinarritutako normalizazioa, hain zuzen ere.

Lehenengo Atalburua XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.—Euskara, Euskal Herriko berezko⁽¹⁾ eta jatorrizko hizkuntza eta haren nortasun ezaugarri nagusia den aldetik, Galdakaoko herritarren eta udalerrri honen ondare kulturalaren ukaezinezko atala da.

2. artikulua.—Euskara eta gaztelania, Euskal Autonomia Erki-degoko hizkuntza ofizialak, Galdakaoko udalerrriaren eta Galdakaoko udal administrazioaren hizkuntza ofizialak dira. Hala eta guztiz ere udal honek lehentasunezko tratamendu berezitua⁽²⁾ emango dio euskarari, bai ahoz, bai idatziz.

3. artikulua.—Hizkuntza ofizialen erabilerari —eta bereziki euskararenari— dagokionez, Galdakaoko Udala eta haren mendeko organo eta erakundeak indarreko legediari eta araudi honetako xedapenei lotuko zaizkie, barne jardunbidean, herritarrekiko harremanetan, udalerriko ekimenetan edo organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua euskararen erabileraren normalizazioa izanik.

Era berean, udalaren eskumenekoak diren zerbitzuak ematen dituzten enpresek hizkuntza ofizialen erabilerari —batik bat, eta bereziki euskararenari— dagokien indarreko legedia eta araudi hau bete beharko dute, ematen den zerbitzuan sor daitezkeen hartu-emanetan, bai udalarekin, bai hiritarrekin.

4. artikulua.—Euskaraz bizi edo jardun nahi duten herritarren hizkuntz eskubide eta aukera errespetatuko da. Aldi berean, udalerriko eremu guztietan euskararen berreskurapena eta normalizazioa areagotzeko, Galdakaoko Udalak euskararen aldeko hizkuntza politika sustatu, zehaztu eta garatuko du.

5. artikulua.—Galdakaoko Udalak esparru bereizi biren arabera zehaztu, antolatu eta gauzatuko du bere hizkuntza politika: udal administrazioa eta udalerria. Udalak eremu bakoitzeko helburu, neurri, erritmo eta baliabiderik egokienak finkatuko ditu, hizkuntz egoera eta beharrianak aztertu ostean.

- (1) Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa «6. art.-1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herriaren gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».
- (2) Galdakaoko Udaleko Agiri idatziak normalizatzeko txostena 2.0 indarrean dago eta bertan zehazten dira udalean jarraitu beharreko ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren zer-nolakoak.

Bigarren Atalburua

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA UDAL ADMINISTRAZIOAN

6. artikulua.—Euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duen indarreko legediari jarraituz, Galdakaoko Udalaren administrazioa hizkuntz normalizazio prozesuaren hiru oinarri nagusiak honakoak izango dira:

1. Administrazio egintza eta harremanen eskaintza euskaraz bermatzea.
2. Euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta garatzea.
3. Udal barneko euskararen erabilera-plana onartu eta garatzea.

2.1.—Administrazio egintzak eta jarduerak

7. artikulua.—Euskarak Galdakaoko udal administrazioaren zerbitzu hizkuntza —eta, hala badagokio, lan hizkuntza— izan behar du. Udaleko lanpostuetan barruko zereginak zeinahi hizkuntzatan betetzen direla ere, herritarrei zuzenduriko edo herritarrekin lotutako administrazio egintza eta jarduera guztiak euskaraz ere eskaini eta burutu beharko dira.

participación ciudadana y la colaboración conjunta alcanzaremos la normalización lingüística, amparándonos siempre en la normalidad, el respeto y los derechos lingüísticos.

Capítulo Primero DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.—El euskera, la lengua propia⁽¹⁾ y original del País Vasco y su principal seña de identidad, forma parte incuestionable del patrimonio cultural del municipio de Galdakao y de su ciudadanía.

Artículo 2.—El euskera y el castellano, las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, son las lenguas oficiales del Ayuntamiento de Galdakao y de su administración municipal. Aun así este Ayuntamiento otorgará al euskera un tratamiento especial preferente⁽²⁾ tanto en la comunicación oral como en la escrita.

Artículo 3.—El Ayuntamiento de Galdakao y los órganos y entidades dependientes actuarán según lo establecido en las leyes generales vigentes y de acuerdo a las disposiciones contenidas en esta normativa en todo lo referente al uso de las dos lenguas oficiales —y especialmente al uso del euskera—, tanto en su funcionamiento interno, en las relaciones con la ciudadanía, en las actuaciones municipales y en las interinstitucionales, teniendo como fin la normalización del uso del euskera.

Del mismo modo, las empresas prestadoras de servicios de competencia municipal deberán respetar lo establecido en las leyes generales vigentes y en esta normativa en todo lo referente al uso de las lenguas oficiales —y especialmente al uso del euskera— en las relaciones que como consecuencia de la gestión del servicio prestado surjan tanto con esta administración municipal como con la ciudadanía.

Artículo 4.—Con objeto de impulsar la recuperación y la normalización del euskera en todos los ámbitos y, al mismo tiempo, respetar la opción de las personas que deseen realizar su vida cotidiana en euskera, el Ayuntamiento de Galdakao promoverá, diseñará y desarrollará una política lingüística a favor del euskera.

Artículo 5.—El Ayuntamiento de Galdakao determinará, planificará y llevará a cabo su política lingüística atendiendo a dos ámbitos diferenciados: administración municipal y municipio. El ayuntamiento establecerá los objetivos, medidas, ritmos y recursos apropiados en cada caso, después de analizar la situación sociolingüística y las necesidades municipales.

- (1) Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre. «Artículo 6. 1. El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas».
- (2) El Informe para la normalización de textos administrativos Ayuntamiento de Galdakao 2.0 está en vigor y en proceso de implantación, matizándose en el mismo los pormenores de la comunicación oral y escrita a seguir.

Capítulo Segundo

NORMALIZACIÓN DEL EUSKERA EN LA ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

Artículo 6.—En virtud de la legislación vigente en materia de uso y normalización del euskera, el proceso de normalización lingüística del Ayuntamiento de Galdakao tendrá tres pilares fundamentales:

1. Garantizar el uso del euskera en las acciones y relaciones administrativas.
2. Aprobar y desarrollar el plan municipal de normalización de uso del euskera.
3. Aprobar y desarrollar el plan de uso del euskera en el Ayuntamiento.

2.1.—Actos y actuaciones administrativas

Artículo 7.—El euskera debe ser lengua de servicio —o, en su caso, lengua de trabajo— de la administración municipal del Ayuntamiento de Galdakao. Independientemente de la lengua en que se realicen las tareas inherentes a los puestos de trabajo municipales, todos los hechos de carácter administrativo y todas las actividades dirigidas a los y las administradas deberán ofrecerse y realizarse también en euskera.

Hau da, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak zehazten denaren arabera:

Udalak ematen duen zerbitzu elebiduna izango da jendaurreko⁽³⁾ administrazio-ataletan, gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan, gizarte-izaerako⁽⁴⁾ ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan⁽⁵⁾.

2.1.1.—Udalaren idazkun, errotulu eta seinaleak

8. artikulua.—Udaleko, udalaren mendeko organismoen egoitzetako eta udalaren zerbitzuak egiten dituzten hirugarrenen errotulazioa euskaraz egongo da lehentasunez:

- a) Bulego eta langoletako errotuluak eta bestelako adierazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.
- c) Gomazko zigiluak, seiluak eta antzeko tresnak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkunak.
- e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako idazkunak.

9. artikulua.—Toki-izenen izendegi ofiziala Galdakaoko Udalak finkatuko du bere eskumen esparruan; beti ere, toponimoaren jatorria errespetatu eta leku-izen euskaldunen kasuan aholkua eskatuko zaie horien idazkeraz eta moduaz eskumena daukaten aholku-entitateei: Labayru Ikastegia edo Euskaltzaindia.

Edozelan ere Euskal jatorrizko leku-izena dagoenean horixe izango da forma ofiziala eta lehenetsia eta kale, plaza eta edozein leku publikoren izena, bai errotuluetan, baita horiek biltzen dituen kaleen izendegi ofizialetan euskaraz jasoko dira.

Oharrak, trafiko seinaleak eta oro har udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztietan euskarak lehentasuna izango du.

2.1.2.—Herritarrekiko harremanak

10. artikulua.—Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremani dagokionez, Galdakaoko Udalak honako oinarritzko hizkuntz eskubideok aintzatesten dizkie bere herritarrei:

- a) Udalarekin eta haren mendeko edozein erakunderekin nahiz udalari dagozkion zereginak egiten dituzten hirugarrenekin euskaraz ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.
- b) Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen berri-emate eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- c) Udalaren batzarretan euskaraz egiteko eskubidea.
- d) Udalak antolatu edo kudeaturiko ikasketak (ikastaro, hitzaldi...) euskaraz egiteko eskubidea.

11. artikulua.—Galdakaoko Udalak egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta euskararen gainerako lurraldeetan daukaten pertsona fisiko zein juridikoentzako agiri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo ditu; hala ere, interesdun pribatuek beren-beregi Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bakarrean jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

12. artikulua.—Galdakaoko Udal administrazioak ontzat hartu beharko ditu pertsona fisiko nahiz juridiko eta pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.

13. artikulua.—Inprimaki guztiak hizkuntza ofizial bietan eskainiko dira.

Según lo regulado en el Decreto 86/1997, de 15 de abril:

Se establecerán unidades administrativas bilingües en las unidades de atención al público⁽³⁾, en todas aquellas unidades que tengan contacto directo y habitual con la juventud, en las de carácter social⁽⁴⁾ y, progresivamente, siempre y cuando lo determine el plan de normalización del uso del euskera de la entidad, se podrán establecer macroplanes de uso en las unidades administrativas de carácter general⁽⁵⁾.

2.1.1.—Inscripciones, rótulos y señales municipales

Artículo 8.—Todas la rotulación visible del Ayuntamiento, de los organismos autónomos o de terceros que realicen funciones propias del Ayuntamiento se inscribirán dando preferencia al euskera:

- a) Rótulos e indicadores similares de oficinas y despachos.
- b) Membretes de hojas, impresos y documentos del Ayuntamiento.
- c) Sellos de goma, timbres sellados y elementos similares.
- d) Inscripciones serigrafiadas en la ropa de trabajo del personal municipal.
- e) Inscripciones en los vehículos, vehículos de transporte y maquinaria municipales.

Artículo 9.—Los nombres de lugar oficiales los establecerá el Ayuntamiento dentro de sus competencias, siempre respetando la procedencia del mismo y en el caso de nombres de procedencia vasca se pedirá consejo para su correcto uso a alguna de las entidades consultivas: Labayru Ikastegia y/o Euskaltzaindia.

Se utilizará con carácter oficial y prioritario, en el caso de nombres de lugar de procedencia vasca, su versión eusquérica para calles, plazas o para designar cualquier sitio público, tanto para rotulación como para utilización oficial.

En cuanto a avisos, señales de tráfico y en general a anuncios en vía pública se dará prioridad al euskera.

2.1.2.—Relaciones con los y las administradas

Artículo 10.—Conforme a lo establecido en la Ley 10/1982, Básica de Normalización del Uso del Euskera, el Ayuntamiento de Galdakao reconoce los siguientes derechos lingüísticos a los y las administradas, en todo lo relativo a las relaciones con la administración municipal:

- a) Derecho a relacionarse en euskera oralmente y/o por escrito con la administración municipal y con cualquier organismo dependiente, así como con terceros que desempeñen funciones propias del Ayuntamiento.
- b) Derecho a recibir en euskera todas las publicaciones periódicas municipales, así como cualquier otra comunicación o resolución que el ayuntamiento publique o difunda en periódicos, revistas, radios o cualquier otro medio de comunicación.
- c) Derecho a expresarse en euskera en cualquier reunión municipal.
- d) Derecho a recibir en euskera cualquier tipo de enseñanza organizada (cursos, conferencias...) gestionada o promovida por el ayuntamiento.

Artículo 11.—Toda la documentación que el Ayuntamiento de Galdakao envíe a personas físicas o jurídicas con domicilio en la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra o en los demás territorios del euskera será redactada en euskera y castellano, salvo que las personas interesadas privadas elijan expresamente la utilización de una de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 12.—El Ayuntamiento de Galdakao aceptará todas las comunicaciones y documentos de personas físicas y jurídicas redactadas únicamente en una única lengua oficial.

Artículo 13.—Todos los impresos municipales se ofrecerán en ambas lenguas.

2.1.3.—Instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanak

14. artikulua.—Galdakaoko Udalak dokumentazio guztia euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan bidaliko die Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta euskararen gainerako lurraldeetako herri-administrazio eta erakunde ofizialei.

2.1.4.—Udalaren ebazpenak eta argitalpenak

15. artikulua.—Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak, edozein motatako ebazpen eta erabakiak, iragarkiak eta, oro har, jendaurreko komunikazio guztiak euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Beste horrenbeste egingo da argitalpenekin, bateko edo besteko euskarria dela ere.

2.1.5.—Batzarrak

16. artikulua.—Galdakaoko Udalaren osoko bilkuretan, tokiko gobernu batzordearen batzarretan edo informazio batzordeetan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta hala jakinaraziko die organoko arduradunak. Behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren funtzionamendua oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak modu zehatzean entzun eta jaso daitezten.

17. artikulua.—Galdakaoko Udalaren osoko bilkuretarako, tokiko gobernu batzordeetarako nahiz informazio batzordeetarako deialdiak hizkuntza ofizial bietan egingo dira.

2.2.—Udal langileak eta udal atalak euskalduntzea

18. artikulua.—Udal langileen kontratazio politikaren bidez, Galdakaoko Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntza normalizazio prozesuari, batez ere, euskalduntzearen beharrezan handiena duten atalei dagokienez. Horrela, bada, jendaurreko administrazio-unitateetan nahiz gizarte-izaerako ataletan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da. Orobat, Galdakaoko Udalak bete egingo du Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta 86/1997 Dekretuak xedatutakoa.

- (3) Jendaurreko atala: administratuairekin ahozko nahiz idatzizko harremanetan oinarritzen diren lanpostu/atalak dira jendaurrekoak.
- (4) Gizarte izaerako atala: Herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizartemilakoak direnean.
- (5) Atal Orokorra: bere zeregin nagusia, administrazio barruan du; informatika, antolakuntza zerbitzuak, langileria, idazkaritza eta kontuhartzailtza.

Hirugarren Atalburua**EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN**

19. artikulua.—Galdakaoko Udalak beharrezko neurri eta bitartekoak jarriko ditu udalerrian euskararen hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala bultzatu eta lortzeko.

20. artikulua.—Galdakaoko euskaldunen portzentajea %30 eta %50 bitartekoa izanik, udalak ahaleginak egingo ditu ondoko hiru helburu nagusiak jadesatearren:

- 1) Herritar euskaldunei euskarazko zerbitzuak eskaintzea, gizarteko hainbat esparrutan euskaraz jardun eta, ahal den neurrian, euskaraz bizi izan daitezten.
- 2) Euskaraz dakiteneke baita ikasten ari direneke ere euskara erabil dezaten bultzatzea.
- 3) Enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen jarduna euskalduntzen laguntzea.

21. artikulua.—Goiko artikuluan zehaztutako helburuak modurik sistematizatu eta eraginkorrenean lortu ahal izateko, Galdakaoko Udalak udalerrian euskara berreskuratu eta normalizatzeko plan estrategikoa diseinatu, onartu eta garatuko du, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako irizpideei jarraituz.

22. artikulua.—Galdakaoko Udalaren udalerriri mailako plan estrategikoa berebiziko garrantzia emango die Eusko Jaurlaritzako Hiz-

2.1.3.—Relaciones con instituciones u organismos oficiales

Artículo 14.—El Ayuntamiento de Galdakao enviará la documentación en euskera o en ambas lenguas oficiales a todas las administraciones públicas y organismos oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra y demás territorios del euskera.

2.1.4.—Resoluciones municipales y publicaciones

Artículo 15.—Los bandos, normativas, ordenanzas, resoluciones de todo tipo, acuerdos, anuncios municipales y, en general, todas las comunicaciones públicas, incluidas las publicaciones, sea cual sea el soporte, se difundirán en euskera o en ambas lenguas oficiales.

2.1.5.—Reuniones

Artículo 16.—Los miembros participantes en plenos, reuniones de la junta local de gobierno o comisiones informativas del Ayuntamiento de Galdakao podrán utilizar la lengua oficial que elijan para expresarse, y así se lo hará saber la persona responsable de cada órgano. Si es necesario, cada órgano analizará y decidirá qué medios se han de emplear para que, por motivos de idioma, no se obstaculice el funcionamiento de la reunión y se recojan fielmente las manifestaciones de todas las personas participantes.

Artículo 17.—Las convocatorias de plenos, juntas locales de gobierno y de las comisiones informativas del Ayuntamiento de Galdakao se realizarán en las dos lenguas oficiales.

2.2.—Euskaldunización del personal y las secciones municipales

Artículo 18.—El Ayuntamiento de Galdakao impulsará el proceso de normalización lingüística mediante una política de contratación adecuada, incidiendo especialmente en las áreas que tengan mayor necesidad de euskaldunización. Así, al crear un puesto de trabajo en las unidades administrativas de atención al público o en las que tengan carácter social, independientemente del tipo de contrato, deberá acreditarse el perfil lingüístico correspondiente. Asimismo, el Ayuntamiento de Galdakao cumplirá con lo recogido en la Ley de la Función Pública Vasca y el Decreto 86/1997.

- (3) De atención al público: se entenderán por tales aquellas cuya función primordial consista en la atención, tanto oral como escrita, al administrado.
- (4) De carácter social: se entenderán por tales aquellas en cuyo desenvolvimiento se manifieste de forma intensa la vertiente relacional de la Administración Pública.
- (5) De carácter general: se entenderán por tales aquellas cuya proyección se manifieste esencialmente en el ámbito intra-administrativo: informática, organización, personal, secretaría e intervención.

Capítulo tercero**USO DEL EUSKERA EN EL MUNICIPIO**

Artículo 19.—El Ayuntamiento de Galdakao adoptará las medidas oportunas y medios necesarios para promover y conseguir la difusión del euskera en los ámbitos demográfico, geográfico y funcional.

Artículo 20.—Puesto que el porcentaje de personas euskaldunes del municipio de Galdakao está comprendido entre el 30 y 50%, las actuaciones municipales se encaminarán primordialmente a conseguir tres objetivos:

- 1) Ofrecer a los ciudadanos y ciudadanas euskaldunes servicios en euskera para que puedan utilizarlo en diversos ámbitos sociales y, en la medida de lo posible, puedan vivir en euskera.
- 2) Impulsar el uso del euskera entre aquellas personas que conocen la lengua y aquellas otras que la están aprendiendo.
- 3) Ayudar en la euskaldunización de empresas, tiendas y todo tipo de entidades del municipio.

Artículo 21.—Al objeto de alcanzar los objetivos expresados en el artículo anterior de modo sistemático y efectivo, el Ayuntamiento de Galdakao diseñará, aprobará y desarrollará el plan de recuperación y normalización del euskera en el municipio siguiendo los criterios expuestos por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

Artículo 22.—El plan estratégico municipal del Ayuntamiento de Galdakao tendrá especialmente en cuenta los ámbitos de actua-

kuntza Politikarako Sailordetzak euskaldun kopuru txiki-ertaineko udalerrientzat lehenesten dituen gizarteko jardute-esparruei: irakaskuntzari, helduen alfabetatze eta euskalduntzeari, euskararen ondorengoetartzeari familia bidez, administrazioari, aisiari, komunikabideei eta kulturgintzari. Hala eta guztiz ere, planak euskararen sustapena jorratu ahal izango du beste zenbait esparrutan ere: teknologia berrietan, lan munduan, kirolean, erlijioan, euskararen corpusean, liburugintzan eta publizitatean.

23. artikulua.—Euskara gizarte-esparru guztietan erabil dadin eta, batez ere, gizarte-bizitzan (hizkuntza-paisaia, musika...) euskararen presentzia gehi dadin udalak, bere jarduketa eremuan, honako neurriak hartu eta betearaziko ditu:

1. Diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, euren jardun subentzionatueta, argitaratzen dituzten ahozko nahiz idatzizko komunikazioetan, euskarari emango zaio lehentasuna, gaztelaniarekin alderatuta.

2. Udal-instalazioak eta udal-materialak erabili ahal izateko lehenengo puntuan jasotako baldintzak bete beharko dira.

3. Lurzoru publikoan egiten diren ekintzek eta, udalaren baimena behar dutenek, artikulua honetan esandakoa bete beharko dute. Hau da, ekintzotan lehentasuna emango zaio euskarari bai komunikazio idatzi bai ahozkoan.

Udalak baterako nahiz besterako baimena emateko baldintzen artean puntu honetan zehazten den betebeharra azalduko da, eta horrela jakinaraziko zaio dagokionari (jabe, erabiltzaile, entitate, elkarte...), fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

Egiaztapen-txostena Hezkuntza eta Euskara Arloak egingo du.

Laugarren Atalburua

UDALAREN AZPIEGITURA

24. artikulua.—Araudi hau modurik eraginkorrenean gauzatu eta garatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta abian jartze aldera, Galdakaoko Udalaren barne organigrama hone-laxe era daiteke: euskara zinegotzigoa, informazio batzordea, euskararen jarraipen batzordea, herri-eragileen lan-taldea eta euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoak:

a) Euskara zinegotzigoa euskararen berreskurapen eta normalizazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen den antolakunde politikoa dugu. Zereginik nagusia udalak hizkuntz politikaz hitzartutako akordioak, hartutako erabakiak eta onartutako planak aditzera eman eta betearaztea da, baita batzordea dinamizatu eta bizkortzea ere.

b) Informazio batzordea. Euskara zinegotzigoaren egiteko da informazio orokorra ematea eta euskararen normalizazio eta sustapenari dagozkion egitasmoak nahiz plangintzak eztabaidatzea eta adostea.

c) Euskararen jarraipen batzordeak ordenantza honen aplikazioari dagozkion gaietan parte hartuko du eta erabilera planaren jarraipena egiteko batuko da. Batzordea Sailerako ordezkariak eratuko dute.

d) Udalerrian euskararen egoera normalizatzeko bada nahi-taezkoa da Udalak egin behar duen euskara normalizatzeko lanaz gainera gaiaz udalerrian zeresanik duten pertsona eta elkarteekin harremanetan lan egitea. Hala bada udalaren lana eta pertsona nahiz elkarte horiena koordinatu asmoz, eta udalerriko hizkuntza normalizazioaren bilakaeraren jarraipena egiteko lan-taldea eratuko da.

e) Euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoak, jendaurreko administrazio egintza eta jarduerak hizkuntza ofizial bietan agertzeko behar diren itzulpen eta testu-zuzenketekin arduratzeaz gain, administrazio nahiz udalerrri eremuetan udalak planifikatutako hizkuntz politikako neurriak antolatu, koordinatu, gauzatu eta balioztatu beharko ditu. Orobat, euskara zerbitzua udalaren aholkularitza zerbitzu ofiziala izango da euskararen normalizazioaren inguruko gai tekniko guztietan, hala soziolinguistikoetan nola estandarizazio prozesukoetan.

ción prioritarios y detallados por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco para los municipios con densidad baja-media de euskaldunes: enseñanza, euskaldunización y alfabetización de personas adultas, transmisión familiar del euskera, administración, ocio, medios de comunicación y producción cultural. Aun así, el plan municipal podrá promover el euskera en otros ámbitos distintos: nuevas tecnologías, el mundo laboral, deporte, religión, corpus del euskera, producción literaria y publicidad.

Artículo 23.—Para impulsar la socialización del euskera y en particular en el ámbito y vida social del municipio (paisaje lingüístico, música...) el Ayuntamiento, en virtud de sus competencias, adoptará y hará cumplir las siguientes medidas:

1. En la comunicación oral y escrita de las actividades subvencionadas de las entidades y asociaciones se le dará prioridad al euskera respecto a la castellano.

2. Para la utilización de material o instalaciones municipales se cumplirá el punto primero.

3. Las actividades a realizar en suelo público, y que necesiten de la autorización del Ayuntamiento, deberán cumplir con lo expuesto dando prioridad al euskera en su comunicación oral y escrita.

El Ayuntamiento recogerá como condición y obligado cumplimiento lo expuesto en los permisos y así lo hará saber a la parte interesada (propietarios/as, usuarios/as, entidades, asociaciones...). Antes de devolver la fianza se deberá comprobar el cumplimiento de lo expuesto.

El informe de cumplimiento lo realizará el Departamento de Educación y Euskera.

Capítulo Cuarto

INFRAESTRUCTURA MUNICIPAL

Artículo 24.—A fin de proponer, analizar y poner en marcha las medidas convenientes para desarrollar esta ordenanza de la forma más efectiva, el Ayuntamiento de Galdakao podrá constituir su organigrama interno de la siguiente forma: concejalía de euskera, comisión de euskera, comisión de seguimiento del euskera, comisión agentes sociales y servicio técnico municipal de normalización lingüística.

a) La concejalía de euskera es el órgano político responsable de todos los temas concernientes a la recuperación y normalización del euskera. Este organismo tiene la tarea principal de dar a conocer y hacer cumplir los acuerdos, resoluciones y planes aprobados por el ayuntamiento en materia de política lingüística, así como la dinamización y agilización de la Comisión.

b) La Comisión informativa. Es tarea principal de la concejalía de euskera la de facilitar información general, así como debatir y consensuar proyectos y planes referentes a la normalización y promoción del euskera.

c) La comisión de seguimiento del euskera participará en la aplicación de los temas correspondientes a esta ordenanza y realizará el seguimiento del plan del uso del euskera. La comisión estará compuesta por representantes de las diferentes Áreas.

d) Para alcanzar la normalización del euskera en el municipio es prioritaria la labor de normalización que se desarrolla desde el ayuntamiento así como trabajar conjuntamente junto con personas y asociaciones involucradas en este fin. Mediante esta comisión se pretende coordinar el trabajo institucional con el de las personas y asociaciones citadas para realizar el seguimiento de la normalización lingüística del municipio.

e) El Servicio técnico municipal de normalización lingüística se encargará de realizar o gestionar las traducciones o correcciones necesarias para que los actos y actuaciones administrativas se realicen en ambas lenguas oficiales. Además, llevará a cabo la organización, coordinación, puesta en marcha y valoración de las medidas de política lingüística planificadas por el ayuntamiento en los campos administrativo y municipal. Asimismo, el servicio de euskera será el órgano asesor del ayuntamiento en todas las cuestiones referidas a la normalización del euskera, tanto en su aspecto sociolingüístico como en los procesos de estandarización.

f) Derrigorrezko urteko txostena Araudiaren neurrien ezarpena eta Euskararen erabilera daukaten eragina eta hartutako neurrien inbertsio ratioak ebaluatuz.

Bosgarren Atalburua

XEDAPEN GEHIGARRIAK

25. artikulua.—Udalak etorkizunean ematen dituen ebazpenek eta udal arlo edo organoek abian ipintzen dituzten egitasmoek araudi honetan jasotako manuak errespetatu beharko dituzte.

Euskara arloko normalizazio teknikaria arduratuko da udal sail eta zerbitzu guztiei araudi honen indarrean jartzea jakinarazteaz, araudiaren xedapenei buruzko argibideak emateaz eta hizkuntz normalizazioa aintzat hartzearen garrantzia ulertarazteaz.

26. artikulua.—Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jarri eta bost urteren buruan udalak haren berrikuspen orokorra egingo du: emaitzak aztertu eta, beharrezkotzat joz gero, komenigarri diren aldaketak proposatuko ditu.

Dena dela, berrikuspena lehenago egin liteke, lege orokorretan zein egoera soziolinguistikoko aldaketak gertatuko balira, baita udalerriko euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuarentzat garrantzi handikoa izan litekeen beste edozein zio-gatik ere.

Seigarren Atalburua

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

27. artikulua.—Berez indargabetuta geratzen dira araudi honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak. Modu zehatzean indargabetuta geratzen da 2005eko otsailaren 29an Udalbatza Osoak onetsitako Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko udal araudia.

Zazpigarren Atalburua

AZKEN XEDAPENA

28. artikulua.—Araudi hau indarrean jartzen den unetik bertatik Galdakaoko Udalak eskumena izango du xedapenok ezarri eta garatze aldera beharrezkoak diren arau, erabaki edo egitarau bereziak manatu eta sustatzeko.

(II-8351)

Abanto-Zierbenako Udala

IRAGARKIA

Udalbatza Osoak, 2012ko irailaren 25ean egindako 04/10 zenbakidun aparteko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Behin Betiko onestea Javier Rodríguez Ortiz de Zárate arkitekto jaunak idatzitako Cotarroko GA-01-EUari dagokion Hirigintza Antolamendurako Plan Berezia.

2. GA-01-EU-ari dagokion Hirigintza Antolamendurako Plan Bereziaren Testu bateratua behar bezala izapidetuta igortzea, ebazpen honen ziurtagiriarekin batera, Foru Aldundiari, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, erakunde horretako Hirigintza Antolamenduko Administrazio Erregistroan gorde dadin.

3. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onesten akordioaren eduki osoa, eta adieraztea GA-01-EU-ari dagokion Hirigintza Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateratua izeneko dokumentua Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Antolamenduko Administrazio Erregistroan gorde dela. Halaber, lurralde historikoan

f) Emitir un informe anual obligatorio que evalúe la implantación de las medidas de esta Normativa, su impacto en el uso del Euskera y los ratios de inversión en las medidas adoptadas.

Capítulo Quinto

DISPOSICIONES ADICIONALES

Artículo 25.—Cualquier resolución dictada por este ayuntamiento o cualquier programa o proyecto emprendido por los órganos o secciones municipales deberán respetar los preceptos contenidos en esta normativa.

La persona técnica responsable de la normalización lingüística del área de euskera del ayuntamiento será la encargada de dar a conocer a todos los departamentos y servicios municipales la entrada en vigor de esta normativa, así como de informarles sobre las disposiciones de la misma y de hacerles partícipes de la importancia de la normalización lingüística.

Artículo 26.—El ayuntamiento procederá a la revisión de esta Normativa municipal de promoción y uso del euskera a los cinco años de su entrada en vigor. En ese sentido, deberá analizar sus resultados y, si procede, proponer las modificaciones pertinentes.

De todos modos, dicha revisión podrá hacerse antes si se modificaran las leyes generales o si sucedieran cambios en la situación sociolingüística del municipio, o por cualquier otro motivo que resulte de gran trascendencia para el proceso de recuperación y normalización del euskera en el municipio.

Capítulo Sexto

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Artículo 27.—Quedan automáticamente derogadas las disposiciones o acuerdos del mismo nivel o inferior a esta normativa y todas aquellas que contravengan sus preceptos. De forma particular, quedan derogada la Ordenanzas de Promoción y Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Galdakao aprobadas por el ayuntamiento Pleno con fecha 29 de febrero de 2005.

Capítulo Séptimo

DISPOSICIÓN FINAL

Artículo 28.—Desde el mismo momento de la entrada en vigor de esta normativa, el Ayuntamiento de Galdakao tendrá competencia para ordenar y promover las normas, acuerdos y programas que estime necesarios para la aplicación y desarrollo de la misma.

(II-8351)

Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana

ANUNCIO

El Pleno de la Corporación Municipal, en sesión extraordinaria número 04/12, de fecha 25 de septiembre de 2012, adoptó el siguiente acuerdo:

1. Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana en la UE-GA-01 Cotarro redactado por el arquitecto don Javier Rodríguez Ortiz de Zárate.

2. Remitir el Texto Refundido del Plan Especial de Ordenación Urbana en la UE-GA-01 debidamente diligenciado junto con la certificación del presente acuerdo a la Excma. Diputación Foral para su depósito en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico con carácter previo a su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» .

3. Publicar en el «Boletín Oficial de Bizkaia» el acuerdo de aprobación definitiva y la normativa urbanística con indicación de haberse producido el depósito del Texto Refundido del Plan Especial de Ordenación Urbana en la UE-GA-01 en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico de la D.F.B., en el diario de